



## **LA SALLE EIBARREN: MENDE BAT BAINO GEHIAGO**

1905. urtean Frantziatik alde egin behar izan zuten Salletar Anaia askoren artean Eibarrera heldu zirenak zeuden. Gogora dezakegu Combes Legea zela-eta, Eskola Kristaua aurrera ezin eramanez, hainbat herrialdetan barreiatu zirela Anaiak. Baina egonaldia motza izan zen: 1914. urtean Europako Gerrara deituak izan ziren Anaiak, eta Frantziara bueltatu ziren. Garai hartan Villamarciel Kontesarena zen Isasiko Jauregiko bazter batean kokatu zen La Salle Eskola, Isasi gainean, Frantziskotar Kontzepzionista monjen etxearen ondoan. San Jose izena zuen Ikastetxea hutsik geratu zen.

1922. urtean Eibarko Ugazabaren Presidenteak, guraso batzuekin batera, Eskola berriro irekitzeko asmoa azaldu zuen. Horretarako Kongregazio desberdinekin hitz egin zuten: Salletarrek ezinezkoa adierazi zioten, Anaien gabezia zela-eta. Azkenean, Jesusen Bihotzaren Anaiak hartu zuten Eskola zaharraren ardura, “Colegio de la Inmaculada de Arrate” izenarekin.

1931. urtean Eibarko erretore zen Urroz jaunak, hezkuntzaz kezkatuta zeuden beste eibartarren laguntzaz, “Asociación Propulsora de Enseñanza” eratu zuten. Helburua: Eskola indartzea eta kristau balioen heziketa bermatzea. Isasiko Jauregia txikia geratu zenez, Eskola berria eraikitzeko pausoak ematen hasi ziren. Parrokiak aurretik erostiako lurra jarri zuen, Armeria Eskola ondoan, oraingo La Salle Isasiko lur saila, hain zuzen. 1933.ean irekitzen da “Grupo Escolar José Antonio Guisasola” deituriko Ikastetxe berria. Guisasolak eraikuntzaren ordainketa garrantzitsua egin omen zuen. Gainera, Errepublikak garai hartan ez zen komeni izen erlijiosorik azaltzea. Korazonistak ere paisanoz eta maisu nazional kontratuarekin zebiltzan.

Hemendik aurrera: Guda Zibila, gerra ondorengo eskasiak, etorkin kopuru handia, jaiotze-tasa gora, etab. Azken faktore hauek eragiten dute Isasiko Eskola leporaino egotea. Badirudi 1954-1955 ikasturtean 200 ume geratu zirela kalean, matrikula egin ezinik.

Hau dela-eta, APEk bigarren Ikastetxearen behar nabarmena ikusita, La Sallerekin hitz egiten du berriro. Oraingoan, baietza jasotzen du, baina kokalekua (Karmeldarren parrokiaren inguruan edo) arbuatzen dute, baldintza eskasak zituelako. Azkenik, Asoziazioak Untzueta Jauregia erosten dio Narbaiza Jaunari 1.900.000 pezetaren truke.

Ikastetxe hau 1958ko azaroaren 30ean inauguratzen da ofizialki, Azitaingo Ama-La Salle izenarekin, gertuko baselizako (gaurko parrokiako) Ama Birjinaren antzinako irudi baten eta La Salleko Joan Bautista Donearen omenez.

Ikastetxe honen 50. urteurrena izanik ere, La Salle Eibarrera duela 100 urte baino gehiago iritsi zen. Bi egonaldien artean 40 urte pasa baziren ere, Isasiko Eskola izan dugu bata eta bestearen arteko lokarri. 1970. urtean La Sallek hartu zuen bere gain Isasiko ardura pedagogikoa.



Gaur egun, La Salle Eibar esaten diogu, 2 urtetik 18 urte arteko gure hezkuntza proiektuari: 2tik 12ra Isasin eta 13tik 18ra Azitainen. APEk jarraitzen du Jabe izaten (Eibarko eta inguruko 600 familiek osatua) eta hemendik gutxira izenpetuko da bi erakundeon arteko hitzarmen berria. Gure erronkak La Salle Ikastetxe gehienentzakoak dira: nola erantzun txertatuta gauden gizarte honetako gaztediari, nola aldarrikatu Jesusen Berri On askatzailea inguru materialista eta sekularizatu honetan, nola piztu ilusioa gogorik gabe datozkigun gaztetxo eta nerabeei, nola integratu beste herrialdeetatik iristen zaizkigunak, nola...

Beraz, aurten La Sallek Eibarren jarraian 50. urte daramatzala ospatzen ari gara eta Eibarko herriarekin bat egin nahi dugu. Marina bat ekitaldi ezberdin antolatu dugu: San Andres eguneko Esker Oneko Eucaristía, Gabonetako Zero Sette akordeoi taldearen kontzertua, nerabezaroaren inguruan Javier Elzok emandako hitzaldia, La Sallei buruzko antzezlanak, I Marrazki eta pintura lehiaketa, argazki Rallya, bazkari herrikoi bat zeinetara ikasle, ikasle ohi, familia eta irakasle asko etorri baitzen eta amenera gisa San Andres parrokiaren Orfeon Donostiarraren kontzertua.



## **CINCUENTENARIO DE LA SALLE EN EIBAR: DESDE HACE MÁS DE UN SIGLO**

Los Hermanos de las Escuelas Cristianas, Hermanos de La Salle, llegaron a Eibar en 1905 procedentes de Francia (expulsados por la Ley Combes). Ocuparon unos locales pertenecientes al Palacio de Isasi, propiedad de la Condesa de Villamarciel, junto al Convento de las Franciscanas Concepcionistas, en el alto de Isasi. En 1914 regresaron a su país al estallar la Guerra Europea.

En 1922 y debido a las muchas necesidades educativas que quedaron desatendidas al marchar los Hermanos de La Salle, el Presidente de la Asociación Patronal Eibarresa junto con unos padres de familia, decidieron crear una nueva escuela, para lo cual se pusieron en contacto con algunas Congregaciones Religiosas. Los Hermanos de La Salle declinaron la invitación al no disponer de personal suficiente para atender el proyecto. Finalmente fueron los Hermanos Corazonistas quienes se hicieron cargo de la antigua escuela situada en el alto de Isasi, con el nombre de “Colegio de la Inmaculada de Arrate”.

Tras algunos años, la dirección queda en manos de la Junta del Colegio. En 1931 el párroco de Eibar, Sr. Urroz, entonces presidente de esta Junta, contando con el apoyo de un puñado de eibarreses sensibles al tema educativo, funda la Asociación Propulsora de Enseñanza con el fin de consolidar la escuela y asegurar la formación en valores cristianos. Como las instalaciones del Palacio de Isasi se habían quedado pequeñas, se inician las gestiones para la construcción de un nuevo colegio en un solar cedido por la parroquia junto a la actual Escuela de Armería. El nuevo centro se llama “Grupo Escolar José Antonio Guisasola”, en honor del ilustre eibarrés, que hizo un donativo importante para sufragar las obras. En octubre de 1933 se inician las clases en los actuales locales de la calle Isasi.

En 1941, la Asociación pierde su personalidad jurídica y queda disuelta, al no cumplir con un Decreto del 25 de Enero, y pasa a poder del Obispado de Vitoria. De esta forma entre 1941 y 1956 rigió el colegio un Patronato en representación del Obispado.

El 2 Agosto de 1956 se redactan nuevos Estatutos y el 4 de Septiembre del mismo año es autorizado por el Gobierno Civil el restablecimiento legal de la A.P.E., e inmediatamente se designa una Junta Rectora para dirigir su marcha. Como el número de alumnos iba en aumento (durante el curso 1954-55 no pudieron ser admitidos 200 niños que solicitaron su ingreso) se plantea la necesidad de un 2º colegio.

La Junta Rectora contacta con los Hermanos de la Salle y logran un acuerdo para que sea esta Congregación la que dirija este segundo colegio. Este nuevo colegio es inaugurado el 30 de Noviembre de 1958 y lleva el nombre de “Nuestra Señora de Azitain La Salle” en atención a que en la ermita cercana de Azitain (hoy Parroquia) se venera una imagen antiquísima de la Virgen, y en honor de San Juan Bautista de La Salle, fundador de los Hermanos de las Escuelas Cristianas, encargados del Colegio.

En 1970 los Hermanos Corazonistas se retiran del “Colegio José Antonio Guisasola”, también llamado por aquel entonces “Colegio Sagrado Corazón”, pasando la dirección pedagógica a manos de los Hermanos de La Salle. El colegio se denomina a partir de esa fecha “La Salle Isasi”.



En la actualidad hablamos de La Salle Eibar como la actualización del proyecto educativo que las familias de Eibar quisieron para sus hijos e hijas a principios del siglo XX.

El proyecto abarca desde los 2 a los 18 años: de 2 a 12 en Isasi (Infantil y Primaria) y de 13 a 18 en Azitain (ESO y Bachilleratos), tal y como se recoge en la misión del Centro:

“ofrece un proyecto de educación no universitaria a Eibar y comarca basado en el carácter propio de los centros de la Red La Salle: integral, cristiano y atento a los valores culturales de nuestra sociedad y a la diversidad de nuestros alumnos y alumnas”.

La Asociación Propulsora de Enseñanza (APE), constituida en la actualidad por más de 600 familias de Eibar y comarca, continúa siendo la Titular y confía a la Red de Centros La Salle la dirección pedagógica del proyecto educativo.

Este año celebramos el 50 aniversario de la presencia continuada de los Hermanos de La Salle en Eibar y para festejarlo hemos querido compartir con el pueblo de Eibar dicha celebración. Han sido múltiples y variados los actos conmemorativos que se han organizado: Eucaristía de Acción de Gracias el día de San Andrés, concierto de acordeones a cargo de Zero Sette en Navidades, conferencia de Javier Elzo sobre la adolescencia, Obra de teatro sobre San Juan Bautista de La Salle, I concurso de dibujo y pintura, exposición fotográfica, una comida popular a la que asistió un nutrido grupo de alumnos, antiguos alumnos, familias y profesores y como colofón, concierto a cargo del Orfeón Donostiarra en la Parroquia de San Andrés.